


BERDINTASUNA



ALEA

arabako aldizkaria



EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIA
NO A L
CONT

DE
LU



GREBA FEMINISTA
**BETAURREKO
MOREAK
IKASTETXEAN**

SANTA BARBARA PLAZAKO AZOKAREN kokapen berria



36 postuak
Posta kaleko pergolaren
aterpean daude orain

Gerturatu zaitetz!



ALEA 185

2019-03-08 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:
ESTI LANAQ.

Aurkibidea

- 6 **Sakonean.** Adsis ikastetxeko neskak, indarkeria martxistari aurre egiten.
- 10 **Protagonista.** Arabako Gizarte Zerbitzuetako zuzendari Miren Saratxaga, Hegoak zerbitzuari buruz.
- 14 **M8 Planto.** Josune Velez de Mendizabal.
- 16 **Sarean.** #M8.
- 17 **Iruditan.** Mariturri eskolan, berdintasuna eraikitzen.
- 18 **Gutuna.** Armagintza eta euskal erantzukizuna.
- 20 **Gizarte.** Sinadura bilketa hasi dute Agurainen eskola-eremuko lanak gelditzeko.
- 21 **Ekonomia.** Diru errazaren 'guru' zena, desagertuta.
- 22 **Esanak eta laburrak.**
- 24 **Kultura.** Mikel Urdangarin musikariari elkarrizketa.
- 26 **Zinema.** 'The Front Runner', Zigor Etxebeste.
- 28 **Gure bazterrak.** Micaela Portilla ibilbidea.
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

*Araba da
erronka*

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugartte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7.bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.
Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako
orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Josune Velez de Mendizabal eta Zigor Etxebeste.

Martxoak 8

Arabako Alea Komunikazio Taldeko emakume langile eta kolaboratzaileok bat egin dugu greba feministarekin eta bi orri hauek zuri utzita agerian utzi nahi dugu hartutako erabakia.

Ikastetxean ere, matxismoari hozka

Adsis Lanbide Heziketako ikastetxeko neskak berdintasuna sustatzeko eta indarkeria matxistari aurre egiteko lan handia egiten ari dira. Zentroaren izaeragatik gehienak mutilak dira, eta jarrera matxistak maiz jasaten dituzte. Alta, orain indartsuago sentitzen dira neskak, eta ikastetxeko errealtatea irauli nahi dute.

Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute** Argazkiak: **Esti Lanao**

Berdintasun tailerra dute gaur Gasteizko Adsis ikastetxean, eta hogeit bat neska bildu dira eguerdian gela batean. Martxoak 8ko deialdiaren inguruko bideo bat ikusi eta gero, txapak, pegatinak eta pankartak egiten hasi dira, ostiraleko mobilizazioetara ikastetxeko emakume guztiak elkarrekin joateko asmoa baitute.

Talde horretan dago Olaia Arias, soldadurako lehen mailako gelan dagoen neska bakarra. Berdintasun taldea sortu dute ikastetxean, eta horretan buru-belarri dago lanean. "Sei emakume eta mutil bat gaude; nik oso gustukoa dut feminismoari eta berdintasunari buruz lan egitea, eta hitz egitea zer gauza aldatu behar diren ikastetxean".

Zer aldatuko zenuke? galdetuta, berehala erantzun du Ariasek. Emakumeak izateagatik dituzten zailtasunak ezabatuko lituzke ikastetxeko eguneroko funtzionamendutik. Esate baterako, komunera joateko giltza eskatu behar izatea. "Mutilek ez dute giltza eskatu behar, nahi dutenean joaten dira komunera, eta neskak, aldiz, beti ibili behar gara giltza eskatzen... *rollo* bat da". Gainera, azaldu duenez, soldadurako tailerlean ez dago emakumeentzako aldagelarik, eta gizonena erabili behar duenez, mutil guztiak aldatu arte itxaron behar du gazteak. Karrozeriako tailerlean ere antzeko egoera dago; aurten, lehendabizikoz, lehen mailan bi emakume daude, eta ez dute aldagela propiorik.

Zentroaren azpiegiturak emakumeak existitzen direla kontuan hartzea bezain garrantzitsua dela uste du Ariasek mutilen partetik



jasan behar dituen komentarioei eta irain matxistei aurre egitea. "Lehen momentutik hasi ziren esaten: *Zer egiten du neska batek tailer honetan? Ile-apaindegian egon beharko luke*; edo garbiketa egin behar dugunean, nik egin behar dudala esaten dute, emakumea naizelako. Hasieran isiltzen nintzen, baina komentarioak gehiegizkoak ziren, eta erantzuten hasi nintzen. Orain ez naiz isiltzen, errespetuz eta irmotasunez erantzuten diet, beti".

Ikastetxeko ikaslea Danna V. Rodriguez ere, eta Olaiarekin parte hartu du Berdintasun taldean. Jarrera matxistei aurre egiteko beharra ere ikusten du: "Soberan daude egiten dizkiguten komentarioak, *joan zaitez garbitzera edo emakumea zara eta hau gizonezkoen lanbidea da*. Aldaketa egiteko, berdintasuna eta feminismoa zer diren azaldu behar da ikastetxe honetan, horretarako osatu dugu Berdintasun taldea".

'Gizonezkoen' lanbideetan, emakumeak

Adsis ikastetxeko hezitzaileak jabe dira gizarte patriarkalaren ereduak behin eta berriro errepikatzen direla zentroan, eta bertan ikasten duten neskek bizi duten errealitateaz. Horregatik abiatu dute emakumeak ahalduntzeko programa bat, eta horren barruan sortu dira Berdintasun taldea eta beste hainbat ekimen.

Besteak beste, oinarrizko Lanbide Heziketako ikasketak eskaintzen ditu Adsis Fundazioaren ikastetxeak Gasteizen, eta 16 eta 18 urte arteko 120 ikasle dituzte gutzira, lau lanbide ezberdinetan: karrozeria, soldadura, ile-apaindegia eta informatika. Soilik 26

Olaia Arias eta Danna V. Rodriguez ikastetxean osatu duten Berdintasun taldean parte hartzen ari dira.

Deialdiak

Greba feministarekin batera honako mobilizazioak deitu dituzte Araban:

Gasteiz

- **12:00etan** ekimen antifaxista, Plaza Berrian.
- **19:00etan** manifestazioa Iparralde gizarte etxetik.

Aiaraldea

- **20:00etan** eskualdeko manifestazioa, Urduñan.

Arabako Errioxa

- **12:00etan** eskualde mailako kontzentrazioa, Oiongo Olibondoaren biribilgunean.

Gorbeialdea

- **18:00etan** eskualde mailako kontzentrazioa, Gopegiko udaletxean.

emakume ikasle daude eskolan, eta aurten, aurrenekoz, neska batzuk sartu dira "tradicioz" gizonenak izan diren tailerretan: karrozerian, bi neska daude lehen mailan; soldaduran, neska bat dago; eta informatika gelan, bost emakume sartu dira. Ile-apaindegiko tailerrean, aldiz, emakumeak dira gehienak, eta soilik mutil bat dago.

Eider Iturrospe Mendieta hezitzaileak nabarmendu duenez, ikastetxean ez dago aparteko gatazka larririk, baina kontuan izanik zer lanbide diren eta gehiengo mutilak direla, uste du ona dela neskak haien artean babestea, "eta babesa jasotzea". Iragan urtean hasi ziren hezitzaileen taldean berdintasun gaiak lantzen, eta indarkeria matxistaren inguruan hausnarketa bat egiten, eta aurten lehen mailako ikasleekin sortu dituzte berdintasun taldeak.

Hurrengo urtean, berdintasunaren gaia curriculumean txertatu nahi dute irakasleek, eta mutilen aldea ere lantzeko beharra ikusi dute. "Emakumeek eta gizonak egin behar duten lana bereizi behar dugu; eta mutilen haien rola inguruan hausnartzeko aukera eman behar diegu", esan du Iturrospek. Izan ere, ikastetxeko neskak eurak erreklamatzeko ari dira lanketa hori. "Neskek galdetzen dute: *gu ahaldunduta egon behar gara, babestu behar gara... Eta haiek, zer? Ez dute ezer ikasi behar? Zergatik ez dute ikasten erasotzaileak ez izaten? Feminismoa mutilek landu behar dute*". Hori da esaten dutena".

Autodefentsa feminista

Mutilen ueña iritsi arte, aurten, neskak egiten ari diren jardueren artean, autodefentsa feminista ikastaroa izan da garrantzitsua; eta oso emaitza positiboak ekarri ditu gainera. Gasteizko Udalaren Ahaldundutze Eskolaren laguntzarekin egin dute tailerra zentroko neskek. Horretan aztertu dituzte indarkeria matxista mota desberdinak, publizitateak zabaltzen dituen irudiaren eta gorputzaren estereotipoak eta autodefentsarako teknikak. Bi eguneko ikastaroa izan da eta motz gelditu zaie.

Olaia Ariasek azaldu duenez, indarkeria matxista detektatzeko eta horren aurrean indartsu jokatzeko balio izan die ikastaroak. "Neska askok zalantzak dituzte, indarkeria matxista den edo ez, zenbait jarrera ez dituztelako lotzen indarkeria matxistarekin". Danna V. Rodriguezen hitzetan, gainera, egoera jakin batzuetan babesten ikasteko balio izan die ikastaroak, "kaletik bakarrik baldin bazoaz eta norbait zure atzetik baldin baduzu, lasaitasunez hartzeko eta zerbait gertatzen baldin bada zure burua babesteko".

Hezitzaileen esanetan, oso esperientzia aberasgarria izan da gaizteentzat, "haien



Eider Iturrospe Mendieta hezitzailea, Martxoak 8ko tailerrean. ESTI LANAO

autoestimua indartu duelako, eta gizartearen begirada feminista bat eskaini dielako. Ikastetxe guztien curriculumaren barruan horrelako ikastaroak txertatu beharko genituzke, errealitatea aldatu nahi badugu".

Ezinegona dago mutilen artean

Eskolako mutilak deseroso daude nesken ahalduntzearekin, eta emakumeek sortu duten espazio fisikoan zein sinbolikoan behin eta berriz sartzen saiatzen ari dira. Hala aitortu dute hezitzaileek eta ikasleek. Izan ere, goiz honetan bertan, neskak Martxoak 8ko tailerra egiten ari ziren bitartean, birritan sartu dira mutilak gelara, aitzaki xelebreekin, zer egiten ari ziren ikusteko.

Emakumeek bere espazioa aldarrikatzeak eta batzeak gizonezkoak lekuz kanpo utzi dituela esan du Iturrospek. Kexu dira, gainera, martxoaren 8an ezin dutelako greba egin. Ariasek azaldu duenez, soldadura tailerrean esan diote ea zergatik emakumeek greba egingo duten eta haiek ez. "Nik erantzun diet: Zer nahi duzue? gauza guztietan protagonistak zarete, eta honetan ere bai? Utz gaitzazue gutxienez egun bat guretzat".

Berdintasun taldeko bere kide Rodriguezek azpimarratu du oso garrantzitsua dela emakume guztiak kalera ateratzea ostiral honetan, eta gizonak euren lanpostuetan geratzea. "Ikusarazi behar dugu mundua emakumerik gabe ez dela mugitzen; nabaritu behar da falta garela. Emakume guztiak kalera atera behar gara Martxoaren 8an, hazten jarraitzeko". ■

"LEHEN MOMENTUTIK HASI ZIREN ESATEN 'ZER EGITEN DU NESKA BATEK TAILER HONETAN?'"

OLAIA ARIAS, IKASLEA

"SOBERAN DAUDE EGITEN DIZKIGUTEN KOMENTARIOAK: 'JOAN ZAITEZ GARBITZERA', ETA HOLAKOAK"

DANNA V. RODRIGUEZ, IKASLEA

BARRUNDIAKO EMAKUMEZKO ARGAZKI-ERAKUSKETA IBILTARIA

Martxoaren 7tik aurrera
Barrundiako udaletxean



A partir del 7 de
marzo
en el ayuntamiento
de Barrundia



Barrundiako Udala
Ayuntamiento de Barrundia

BARRUNDIAKO FEMINISTAK

LAIA eskola
Espazio ereduaren garapenerako eta berrikuntzarako
Datuak: www.laia.org
• ARABAKO FORU ALDUZKIA
• ERREPUBLIKAZIOA

"Tratu txarrei aurre egiteko batzorde berri bat osatuko dugu"

MIREN SARATXAGA ARABAKO GIZARTE ZERBITZUETAKO ZUZENDARIA

Hegoak foru zerbitzuak iazko datuen memoria aurkeztu du: genero indarkeria jasan duten mila emakume baino gehiagori eman zion arreta psikologikoa. Gizarte zerbitzuetako zuzendariak jasotako datuen errepasoa egin du, eta eragile ezberdinen arteko batzorde bat osatuko dutela iragarri du, koordinazioa hobetze aldera. Testua: **Mirian Biteri**. Argazkiak: **Esti Lanao**.

Arabako Diputazioak Hegoak zerbitzuaren iazko jardueraren balantzea egin berri du. Gizarte zerbitzuetako zuzendari Miren Saratxagak (Urduña, 1987) genero indarkeriaren biktimei emandako arretaren berri eta etorkizun laburrera begira esku artean duten erronkaren berri eman du datozen lerroetan.

Zerk bereizten ditu genero indarkeriari lotuta udalek emandako zerbitzua eta Hegoak emandakoa?

Normalean, udalek eskaintzen dute genero indarkeria jasaten duten emakumei zuzendutako lehenengo harrera. Horiez aparte, badago zerbitzu espezializatua; eta hori da, hain justu ere, Hegoak foru zerbitzuak eskaintzen duena. Bi esparrutan egiten du lan horrek: arreta psikologikoa du, batetik, eta juridikoa, bestetik. **Arreta psikologikoari dagokionez, nondik heltzen zaizkizue kasu horiek?**

Gehienak, beste zerbitzuetatik bideratuta datoz; lehen atea normalean udal zerbitzuena izaten bada ere, bestelakoetatik ere heltzen dira. Esaterako, Osakidetzatik, Ertzaintzatik edo epaitegitik iritsitakoak ere jasotzen ditugu.

Azken horrekin lotuta, Diputazioa genero indarkeria jasaten duten emakumei arreta eskaintzeko erakunde ezberdinen arteko batzordea osatzekotan dabil, ezta?

Bai, martxoaren 21rako dago deituta batzorde horren inguruko lehen bilera. Diputazioaren berdintasun planean koordinazio eremuak sortzeko ildo berria aurreikusi zen, eta horren ondorio da esandako batzarra. Egunerokoan agertzen diren arazoak zelan bideratu da horren helburu nagusia, eta horretarako oso garrantzitsua da bakoitzak egiten duen lana ezagutzea. Batzorde horretan eragile ezberdinak egongo dira ordezkaturak: Diputazioa, Eusko Jaurlaritza, Gasteizko Udala, Eudel, Arabako abokatuen elkargoa, Fiskaltza, hezkuntza eta osasun alorretarako ordezkariak eta Lanbide. Elkarlana sustatzea du helburu.

Bestalde, Hegoak zerbitzuaren pasa den urteko memoria aurkeztu berri duzue. Zenbat lagun hurbildu ziren iaz arreta psikologikoa jasotzeko?

Denera, 1.035 pertsona izan ziren. Kontuan hartu behar da horrek ez dituela emakumeak bakarrik artatzen; integrala da eta bost kolektibori ematen dio arreta: indarkeria jasan duten emakumei, sexu abusuak izan dituztenei, adingabekoei,



zeharkako biktimei eta erasotzaileak izan diren gizonei. Logikoa denez, emakumeak izan ziren zerbitzua erabili zuten gehienak: guztira, 881.

Zerbitzua martxan jarri zenetik kopururik altuena izan zen iazkoa. Zer ondorio atera daiteke?

Alde batetik, uste dugu gero eta emakume gehiago direla Hegoak zerbitzu espezializatua ezagutzen dutenak; administrazioen arteko elkarlanak asko sendotu du, eta, ondorioz, handitzen doa kopurua. Bestetik, azpimarratzekoa da genero indarkeriaren aurrean gizarteak duen jarrera gero eta ozenagoa dela eta jakinekoak direla egoera horren aurrean eman beharreko pausuak. Horrek ere eragina izango zuen igoeran.

Guuzti horrek aldaketak ekarri ditu zerbitzuan...

Bai, arreta psikologikoa emateko arloa hobetu egin dugu. Pasa den urtean, Gasteizen, astean, 30 ordu gehiago eskaintzen hasi ginen, eta Laudion, 7,5. Horrez gain, zerbitzu berriak jarri ditugu martxan Amurrión eta Agurainen; Guardia, Oion, eta Audioko deszentralizazioak osatzen dituzte bi horiek. Modu horretan, hitzordu bat, gehienez ere, bi asteko epean ematea lortzen ari gara. Eta bestetik, kontuan izan behar da Araba ez dela bakarrik Gasteiz; kuadrillak baditugula, eta

erraztu behar diegula herrietan bizi diren emakumeei horrelako zerbitzu batera joateko aukera izatea. Bide horiez gain, telefono bidezkoa dugu, 945-15 10 15 zenbakira deituta.

Nolakoa da tratu txarrak edo sexu abusua jasan dituztenen perfila?

Orokorrean, nahiko antzekoa da toki guztietan. Igarri duguna da emakume horien erosteko ahalmena murriztagoa dela. Hau da, bostetik bat langabezian dago eta erdia baino gehiago aktibo badaude ere, askok lan prekarioa dute. Bere bikotekideen batez besteko erosteko ahalmena, aldiz, ertaina eta handia artekoa da. Hor dago aldaketa nabarmenena. Bestalde, hamarretik zortzik seme-alabak dituzte eta ia horietatik erdiek zuzenean indarkeria fisikoa edo psikologikoa jasaten dute.

Adin txikikoak. Nolakoa izan da alor horren bilakaera?

Arreta integrala eskaintzen dugunez, eta adin txikikoak eta beste senideak ere kaltetuak direnez, horiek artatzen ditugu; datuei erreparatu gero, aipatu behar da %8ko igoera izan duela kopuruak; 78 kasu izan genituen esku artean. Azkenean, emakumeen kopuruak gora egiten duen heinean, ingurukoena ere gora egingo du; elkar lotuta doaz.



Gizarte Zerbitzuetako zuzendari Miren Saratxaga, bere bulegoan. ESTI LANAÑO

"MARTXOAREN 21EAN ERAKUNDE EZBERDINEKIN OSATUTAKO BATZORDEA JARRIKO DUGU ABIAN"

"ZUZENEKO ARRETA DUGU LAUDION, GASTEIZEN, AMURRION, OIONEN, AGURAINEN ETA GUARDIAN"

"ARRETA SOZIO-JURIDIKOAN, DIBORTZIO PROZESU BATERAKO NEURRIAK EZAGUTZERA DATOZ"

Aipatu bezala, bi alorretan egiten duzue lan. Arreta sozio-juridikoaren programa ere baduzue. Zenbat emakumeri eman zion zerbitzuak arreta?

Pasa den urtean, 318 emakume artatu genituen; 2017an, 297 izan ziren. Prozesuaren aurreko aholkularitza juridikoa jasotzen dute, familia zuzenbideari eta genero indarkeriari buruzko gaietan eta baita prozesu juridikoen jarraipenean ere. Gasteizen, Laudion eta Amurrion dago zerbitzu hori. Gehienak, %79a, banatze edo dibortzio prozedura baten aurrean, hartu beharreko neurriak ezagutzera datoz; tartean, bikote ezkongabeetan gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak arautzeko edo banatzearen ondorioz indarrean dauden neurriak aldatzeko egin beharreko izapideei buruz galdetzen dute bereziki. Ditutzen zalantzak argitzearekin batera, genero indarkeria dagoen prozedurei ere jarraipena egiten diegu; azken kasu horretan, iaz, 31 prozedurari jarraipena egin genion. Arreta sozio-juridikoaren zerbitzua eskaintzerakoan, dena dela, ez da lotuta egon behar genero indarkeriarekin; orokorragoa da. Alor honetan, urte osoan zehar, hainbat hitzaldi eskaini genituen aipatu zerbitzua martxan dagoela jakinarazteko. ■■■

Onenetan onena, erdi-prezioan baino merkeago.

Orain, OSOA Familyrekin, **GIGA MUGAGABEAK**
dituzu **DOAN** 2019ko **asteburu guztietan**.

Eta, gainera, kalitate handiko Internet,
mugikorra eta telebista 4k Deskodetzailearekin.

Zatoz Euskaltelera



120

MEGA



20GB

DEI
MUGAGABEAK



PREMIUM

TB_d

4KDEKOArekin



FINKOAA

DEI
MUGAGABEAK

GIGA MUGAGABEAK
DOAN

2019KO ASTEBURU GUZTIETAN



Kontratatu pakete hau
euskaltel.eus helbidean | Dendetan | 1717an



euskaltel

Zatuz zuntzera 2019/3/15 baino lehen, eta sei hilabetez izango duzu sustapen hau.
kontratazio-egunetik zenbatzen hasita. Iraupen-konpromisoa: 12 hilabete. Gero, prezioa
72 €/hil izango da. Ostiraleko 14:00etatik astelehenera 24:00ak arteko datu-konsumoak
sartzen dira NAHI ADINA. GIGA aukerara, eta arrazoizko erabileraren politika bat du
ezarria. BEZa sartuta dago prezioetan. Informazio gehiago, hemen: www.euskaltel.eus

Babesle teknologikoa:



Martxoak 8



JOSUNE VELEZ DE MENDIZABAL

AKTOREA



Emakume gehiagorekin

gure Kontzejuak irabazle

Con más mujeres

nuestros Concejos ganan

Arabako Kontzejuetan karguen %24 soilik dago emakumeen esku.
En los Concejos de Álava solo el 24% de los cargos son ocupados por mujeres.

Laguntzaileak / Colaboradoras:



ASOCIACIÓN DE CONCEJOS DEL MUNICIPIO DE VITORIA
"MAYORALDIA DE LA JUNTA DE ELIMINACIÓN"
"ASISTENCIA CONCEJOS EL ALFAYRA"
"MOVIMIENTOS"

LAIA eskola
Instituto Emakumeen Partekatuta eta berri irakasteko aldia
Instituto con la igualdad y el reconocimiento de la mujer en Euzkadi



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

SAREAN

@MIRIANBITERI

#M8

Sare sozialak Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira Euskal Herri osoan antolatzen ari diren bozgorailua bihurtu dira beste behin. Erakundeek eta alderdi politiko ezberdinek martxoaren 8aren aldeko mezuak zabaltzen dituzten bitartean, tokiko eragileek herri bakoitzean antolatzen ari diren hitzorduen berri ematen dute horietan. Horrez gain, badaude feminismoaren aldeko aldarria ozen bota eta greba feminista parte hartzeko deia egiten dutenen txioak ere. Hona hemen horietako batzuk. ■



**ZURIÑE
RODRIGUEZ**
@Zuriro

Bagoaz!!!! Gora Gasteizko feministak! Grebarako Prest!!!



**ANE
ETXEBERRIA**
@etxebe_2

Feministok etxeko lanak egiten gabiltza: boteretzen, auto-antolatzen, aldarrikapenak biltzen eta, beharrezkoa denean, auto-kritika egiten. Jarraitu dezagun gauero iraultza feminista amesten.



**NATALIA
GARDEAZABAL**
@ngarde67

Friedl Dicker ez da testuliburuetan agertzen, emakumezkoa zelako. Egungo errealitatearen antzekotasuna kasualitatea ez denez, #M8-rako nire omenaldi txikia. Feminismoa antifaxista izango da edo ez da feminismoa izango!



**EDURNE
SENSOIAIN**
@EdurneSE

Zubiak eraiki mugak zabalduz. Xenofobiarik gabeko gizarte feministaren alde. #M8 #Planto #GrebaFeminista #Besarkada



OLI A.A.
@olatartola

Feminismoa ezin da erosi emantzipazioa ez dagoelako salgai. Euskal Herriko Mugimendu eta Greba Feminista ezin dira zuritu!

MARTXOAK 9
Larunbata 17:30
LEGUTIO,
Kultur etxean
Gai-emailea:
Aitana Iradier Martínez de Albeniz

Antolatzailea: Sabende sapsakak.

Manex
Agirre
Arriolabengoa

Xabi
Igna
Eritz

Aalero
Arriolabengoa
Bengoa

Peru
Abarrategi
Samonaindia

Aitor
Ugartea
Eritz

Serapio
Lopez
Ortuzeta

Tikiari, Iratiko Sabendeak Herriakelak



Ikastetxeetan ere, berdintasunaren alde

Hezkuntza arloan ere lanean dabilta, martxoaren 8ari begira, askotariko ekintzak antolatzen. Gasteizko Zabalgana auzoan dagoen Mariturri ikastetxeko amek, esaterako, *Berdintasuna egunero eraikitzen* izeneko horma-irudi koloretsua margotu dute emakumearen nazioarteko egunaren bueltan; Arrate Remon artista gasteiztarraren gidaritzapean egin dute lan. Eskolako jolastokiko sarrerako horma apainduko du aurrerantzean artelanak.

Argazkia: Koldo Alzola. ■■■



Bidali zure argazkiak testu labur batekin: erredakzioa@alea.eus

Armagintza eta euskal erantzukizuna

IÑAKI ETAIO

EHUKO IRAKASLEA

Kontzientziaren mugetatik haratago izenburupean argitaratu zuen Günther Anders filosofoak Hiroshiman bonba atomikoa jaurtitzeko agindua eman zuen Claude Eatherly soldadu ohiarekin izandako eskutitz-trukaketa. Eatherly psikiatrikoan zegoen, errudun-kontzientziak jota, nahiz eta AEBetan askorentzat heroi bat izan. Anders-entzat, munstrokeria horren erantzuleto bat izan arren, biktima ere bazen. Nahiz eta administrazioak buru-gaixotzat hartu eta itxi, bere ingurunea baino osasungarriago zegoen, erruaz kontziente zelako eta ahaztu nahi ez zuelako. Aldiz, egindako basakeria gainditu eta normaltasunez bizi ziren soldadu ohiak osasuntsu omen zeuden jendarte horretan.

Aipatutako liburuak hemen bertan hausnartzeko egunerokotasun osoko

elementuak ditu. Euskal Herritik bonba atomikorik jaurti ez badira ere, herri batzuen hondamendia dosifikatzen da. Gasteizen egindako Gerrarako Eusko Label armak jardunaldietan salatu denez, hemen armagintza oso presente dago, nahiz eta Radio Euskadiko elkarrizketa batean Urkullu

"ARMAGINTZAK JASOTZEN DUEN DIRUAK AGERIAN UZTEN DU INSTITUZIOEN ERANTZUKIZUNA"

"HEMENGO ENPRESA, INSTITUZIO ETA LANGILE ASKO HERIOTZAZ ETA DRAMAZ ZIKINDUTA DAUDE"

ehiza-armetara mugatzen saiatu. Ekoizpen soilik militarra ala zibila ere daukaten enpresak 100 baino gehiago dira Euskal Herrian (ikusi web-ean Gasteizkoak kolektiboaren *Estas guerras son muy nuestras*). SAPA, Aernnova, ITP edo Sener

bezalako enpresek bere lanean darraite, banku askoren (BBVA, Caixabank, Caja Rural, Kutxabank...) finantzazioa eskuratzen eta instituzio publikoen (nagusiki Eusko Jaurlaritz, baina ez bakarrik) diru-laguntzak eta sariak ere jasotzen.

Bitartean, milaka kilometrotara, pasa den urtera arte Bilboko portuan ontziraturako bonbak Yemenen etengabean erortzen dira, euskal piezez hornitutako Eurofighterrek Yemen eta beste herri batzuk bonbardatzen dituzte edota hemengo enprekin kolaborazioak dituen sektore aeronautiko sionistak palestinarren garbiketa ahalbidetzen du. Era berean, euskal unibertsitate publiko zein pribatuetan garatzen den ikerketak eta sinatzen diren hitzarmenek heriotza-industria honetan topatzen dute ere beren aplikazioa. Beste herrietako biktimen odolak ez du Euskal lurra zipriztintzen fisikoki baina hemengo enpresa, instituzio eta langile asko



Gerrarako Eusko Label Armak ekinaldia aurkezteko egindako agerraldia. ALEA

heriotzaz, mutilazioaz eta dramaz zikinduta daude.

Izan ere, heriotza-industria kate luze bat da, non eragile askoren inplikazioa behar den, enpresariatik haratago. Eskrupulurik gabeko negozio huts bat da haientzat, non etika lehiakortasunerako oztupoa baino ez den. Humanismo baloreen izenean negozio hori alboratzeko eskatzea harrapakaria belarjale bihurtzeko eskatzea bezain alferrekoa da.

Historiak erakutsi digu ere kapitalismoak ez duela funtzionatzen merkatu libre batean eta kapitalistek Estatuaren instituzioen estaldura daukatela beren jardueretarako. Euskal armagintzak jasotzen duen diru publikoak baita ikerketa zentro publikoekiko kolaborazioek agerian uzten dute instituzioen erantzukizuna. Nagusia den klase burgesaren interesak defendatzeaz gain, gainontzeko herritarren interesak defendatzea omen badagokie, ez legoke gaizki beste herrietako pertsonen interesen alde egiteko eskatzea, hemen ekoiztutako gailuek hilda ez izateko eskubide apala bada ere... Nahiz eta inposturik ez ordaindu hemen, bizitzarako eskubidea daukate beren herrietan.

Beste aldetik, ezin dugu ahaztu langileak ere kate horren ezinbesteko parte direla, armen diseinuan, ekoizpenaren fase ezberdinetan, logistikan edo armen garraioan. Kate-begi hauek gabe, heriotza-kiribil honek ez luke jarraituko herriak eta pertsonak triskatzen. Anders-ek azaltzen zuen gehiegitan ez ditugula lotzen gure ekimenak eta ondorioak,

eta ohartarazten zuen bakoitzaren lana diluitzen eta ondorioen arduraren karga desagerrarazten saiatzeaz. Ihesbide ezberdinak daude kontzientzia deskargatzen saiatzeko: ekintzaren ondorioa zorian utziz (fusilamendu pelotoietan jaurtigairik gabeko fusilen moduan, agian nik ekoiztutako bonbek ez dute inor afektatu... ez dut inoiz jakingo), norberak egin ezean beste batek egingo lukeela, lan bat egitera mugatzen ari dela, aginduak betetzen ari dela (erantzukizun osoa beste bati transferituz) edo elikatu beharreko seme-alaben

"ARDURA DAUKAGU HEMEN ZER EKOIZTEN DEN ETA ZERTARAKO ERABILTZEN DEN JAKITEKO"

"EZ DEZATELA SALDU ETA EZ DEZAGULA EROSI ANKERKERIA HAU LANPOSTUEN IZENEAN"

defentsak beste seme-alaben heriotza edota mutilazioak justifikatzea ("nireak", inoiz ezagutuko ez ditudan "beste horien" gainetik).

Baina parte-hartzaile zuzenez gain, jendarte baten parte bezala guztiok daukagu erantzukizuna. Ezaguna da III Reich-ean sarraskien aurrean Alemaniako populazioak izandako konplizitatea edota Argentinan 30.000 lagun desagerrarazi zutenean klase ertaineko zati handiak izandako *ez-sinetsi-nahi* jokabidea, suma zitekeena ez zela hainbestetako izango auto-sinestaraziz. Hurbilago, azken

hamarkadetako milaka tortura kasuen aurrean ukatze edota gutxitze jarrera oso zabaldua egon da askoren artean hemen ere. Galdetu behar diogu gure buruari ea ez garen antzeko zerbait egiten ari eusko label armagintzarekin.

Ardura daukagu, lehenik eta behin, hemen zer ekoizten den eta zertarako erabiltzen den jakiteko eta ezagutarazteko, ez-ikuste posizio erosoak alboratuz. Mugimendu antimilitaristak jakinarazi digu aspaldidanik. Horretaz haratago, beharrezkoa da instituzioak presionatzea industria-mota hau bultzada publikorik ez jasotzeko eta erabilera militarrik ez dituzten enpresetara eraldatzeko. Ez dezatela saldu eta ez dezagula erosi ankerkeria hau ekonomiaren edota lanpostuen izenean. Hain era akritikoa barneratzen dugun jendarte solidario izatearen ideia hori astindu behar dugu ere, auto-konplazentzia lasaigarria deseginez. Elkartasun-marketina baino ez diren instituzioen diru-laguntza eta kooperazio-proiektu askok ezin dute zuritu euskal armen ekoizpen eta esportazioaren errealitate gordina. Beste herrien triskantzaren konplize zuzenak edo ez-zuzenak garen bitartean, hemengo gobernu eta instituzioek heriotza-merkatua babesten duten bitartean, ez gara gehiegi ezberdintzen AEBetako jendartetik non Hiroshima bonbardatu zutenek ulertze eta gorespena zeukaten.

BIDALI ZURE GUTUNA: erredakzioa@alea.eus
Gutunarekin batera, bidali zure izen-abizenak, herria, telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia.
ALEAK eskubidea du gutuna laburtzeko eta
***alea.eus*-en argitaratzeko.**



Udalak lanen inguruko informaziorik ez duela eman diote gurasoek. AGURAINGO GURASOAK

Sinadura bilketa, obrak gelditzeko

Aguraingo Lope de Larrea ikastolako gurasoek salatu dute alkatea hauteskundeak lehenesten ari dela, haurren segurtasunaren aurretik. Obrak opor-garaian egiteko sinadurak bilduko dituzte gurasoek.

E. UGARTE LZ. DE ARKAUTE AGURAIN
Haserre bizia piztu du Agurainen azken hilabetean udal gobernuak abian jarri duen obra sortak. Are gehiago, obrako eremuan bi ikastetxe, haur-eskola bat eta osasun-zentro bat daudelako, eta kaltetuei inork ez dielako, alde aurretik, obra horien berri eman. Hauteskunde interesa leporatu diote alkateari kaltetuek, eta sinadura bilketa hasi dute obrak gelditzeko.

Lope de Larrea ikastolako gurasoek salatu dutenez, otsailaren

20an jakin zuten, "ikastolak berak esanda", obrak egin behar zirela ondoan. "Hori gutxi balitz, esan beharra dago ikastolak obrako langileei galdetuta eskuratu duela informazio hori. Izan ere, Udalak ez du inolako jakinarazpenik bidali ikastolara".

Gurasoen ustetan, Udalak obra horiek denboraz komunikatu behar zizkion ikastolari, bertako langileei eta seme-alabak bertara eramaten dituzten familiei, "baina, tamalez, ez da inolako jakinarazpenik egon".

Gauzak horrela, eta obra horien ondorioz, kotxeen zirkulazioaren norabidean eskumako espaloia eta ezkerrekoaren zati bat kendu dituzte, aparkatzeko tokia murriztu dute, Ikasbi ikastolako eta haur-eskolako sarrerak oztopatu dituzte eta ikastetxearen eguneroko jarduerari eragiten dioten zaratak daude eskola-eremuan, gurasoek azaldu dutenez.

"Segurtasun falta"

Halaber, gurasoek nabarmendu dute "segurtasun falta ikaragarria" dagoela. "Obra hauen ondorioz, gure seme-alabak errepidetik joatera behartuta daude, eta Ikasbi eta haur-eskolarako sarbideetarako espazioak murriztu dituzte, ume pilaketetarako arriskua eraginez. Ez dago ikastolara sartzeko segurtasun perimetririk".

Bostehundik gora dira ikastolara joateko bide hori egiten duten ikasleak, eta, gurasoek salatu dutenez, egoera berean daude gainerako ikastetxeetako ikasleak, baita osasun zentrora joaten direnak ere. "Mila pertsona inguru dira egunero-egunero egoera hau jasan behar dutenak, obra hau egiteko orduan Udalak kontuan hartu ez dituen kaltetuek, alegia". Gaineratu dutenez, eskolako autobusen eta umeak ikastolara kotxez hurbiltzen dituztenen joan-etorriak ere ez dituzte kontuan hartu. Hortaz, lan horien kontra, sinadurak biltzeari ekin diote.

"Hauteskunde obrak"

Ildo berean, EH Bilduko zinegotzi Iñigo Espadak ere aspaldi salatu du EAJko alkate Iñaki Berazak azken hilabetean agindu dituen obrak "hauteskunde obrak" direla, eta legegaldi honetan udal gobernuak "ezer egin ez duela" kritikatu du; "utzikeria" leporatu dio alkateari.

Desagertuta dago diru errazaren 'guru' zena

Aitor Gonzalez de Zarate idazle eta espekulatazaileari iruzurra egitea leporatu diote hainbat inbertsorek: ia 600.000 euro desagertu dira.

JUANMA GALLEGRO GASTEIZ

Duela hainbat urte, krisi ekonomiko punturik gorenean zegoenean, arrakasta handia lortu zuten irakurleak burtsan inbertitzera animatzen zuten liburuek. Horien artean, Aitor Gonzalez de Zaratek idatzitakoak denbora luzean ez fikzioa alorrean gehien salduenen artean egon ziren. Izenburuek argi erakusten dute liburu horien atzean zegoen filosofia: *Espabila y gana dinero con la crisis* edota *Cambio de vida, cómo me hice rico*. Ekonomian esperientzia asko eduki gabe burtsan espekulatzera animatzen zuten liburu horiek, baina, normalean, idazleak eta argitaletxeak izaten ziren dirua irabazten zutenak.

Merkatu horretan beste negozio aukerak baziren. Gonzalez de Zaratek gidatzen zuen FH Inversiones enpresak ikastaro ugari prestatu zituen, tartean bost eguneko *campus master* izenekoak, 4.000 euroren truke.

Orain azaleratu dira negozio horretan izandako irregulartasunen zantzuak. Hainbat hedabidetan zabaldu denez, hiru lagunek Gonzalez de Zarateren eta haren bi kideren aurkako kereila aurkeztu dute Gasteizko epaitegietan, iruzurra egitea leporatuta. 2012an hiru lagun horiek ia 600.000 euro jarri omen zituzten Gonzalez de Zarateren esku, inbertsioak egin zitzen. Halere, bi urte pasa zirenean, dibidenduak banatzeko garaia iritsita, Gonzalez de Zara-

tek posta elektroniko bitartez erantzun zien diru hori galduta zegoela, broker baten erruz. Orain, Baskoniako jokalaria ohi izandakoa desagertuta dagoela salatu dute.

Saskibaloi profesionala utzi zuenean Gonzalez de Zarate *trading*-aren alorrean espezializatu zen, bereziki espekulazioan oinarritzen den gerokoen merkatuan. Horren funtsa da orainaldian salerosketa bat egitea, baina ondasun horrek etorkizuneko une zehatz batean izango dituen balidintzetan, teoriar horiek ezagutu gabe. Haien izaera dela eta, salerosketa horietan informazio pribilegiatua izatea erabakigarria izan ohi da. Beti ere, noski, informazio hori fidagarria bada.



ATE IREKIAK

UNIBERTSITATE GRADUAK

2018/19



Learning from reality

Pausu txikiekin, gauza haundiak egin daitezkeela erakutsi dit 4 urteko esperientzia honek.

Aintzane Agirre Zuriarrain

Azpeltia. Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza
LEINN. 4. maila.

INGENIARITZAK

ARRASATE MARTXOAK 27
ASTEAZKENA 17:30

GOIERRI MARTXOAK 28
OSTEGUNA 17:30

ORONA IDEO MARTXOAK 30
LARUNBATA 10:30

HEZKUNTZA

ESKORIATZA MAIATZAK 11
LARUNBATA 11:00

KOMUNIKAZIOA

ARETXABAETA MAIATZAK 11
LARUNBATA 11:00

GASTRONOMIA
ZIENTZAK

— Basque Culinary Center

DONOSTIA MARTXOAK 23
LARUNBATA 10:30

EKINTZAILTZA,
ENPRESA KUDEAKETA

BILBO MARTXOAK 14
OSTEGUNA 18:00

OÑATI MARTXOAK 23
LARUNBATA 11:00

BIDASOA MARTXOAK 28
OSTEGUNA 18:00



Etorriko zarela jakinarazi!
902 110 436 — www.mondragon.edu/prest

ESANAK



OLGA JIMENEZ
KIROKAZETARIA

"Emakumeek ere saskiratzen dutela deskubritu dute batzuek Erreginaren Kopan"



JUAN JOSE IBARRETXE
LEHENDAKARI OHIA

"Itzal handiko gizona izan zen Xabier Arzallus. Agur eta Ohore!"



MENTXU RAMILO ARAUJO
EHUKO POLITOLOGOA

"Arabako 48 kontzejutan inoiz ez dute emakumezkorik aukeratu"

ZENBAKITAN

Zinegotziak

Maiatzaren 26an izango diren hauteskundeetan 429 zinegotzi aukeratu dituzte arabarrek, 2015. urtean baino bi zinegotzi gutxiago. Izan ere, Gaubeako eta Haraneko udalerrietan jasotzen ari den biztanleen galerak bi udaletako ordezkarien zenbatekoa murriztea ekarri du, eta bi zinegotzi galdu ditu bakoitzak.

Gaubeak 1.038 biztanle zituen orain dela lau urte, eta egun ez du mila biztanleren langa gainditzen. 991 hauteslerekin soilik zazpi zinegotzi aukeratu ahaliko dituzte gaubearrek. Haranan, berriz, 259tik 229ra jaitsi dira, eta horrenbestez, zazpi zinegotzitik bost zinegotzira pasatuko dira.

429

1

Milioi euro

Iruzur fiskala ekiditea xede duen softwarea garatzeko 1.028.500 euro gastatuko du Diputazioak. Tresna informatiko berriak "iruzurraren aurkako borrokan" aritzeko lagungarri izatea espero dute. Zehazki Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuari patroir berriak eskainiko dizkio programa informatikoak, eta "aurreikuspen azterketak" egingo ditu, datu historikoetatik ikasteko. Modu horretan iruzur mota berriak atzeman nahi dituzte.

54

Jarduerak

Gauekoak programak 138 saio egingo ditu aurten, 54 jarduera ezberdinetan. Gasteizko Udalak martxan duen gazteentzako aisialdirako programak kultura alternatibak eskaintzeko helburua du. 16 eta 30 urte bitarteko gazte gasteiztarrei zuzenduta dago, eta era guztietako proposamenak hartzen ditu. Aurreko urteetan bi denboralditan egin badute ere, aurten denboraldi bakarrean egingo dute, martxotik urrira.

Omenaldi jendetsua egin dute Martxoak 3ko biktimak gogoan

1976n Espainiako Poliziak Gasteizen hildako langileak omendu dituzte igandean, eta haiek egindako borrokaren balioa aldarrikatu dute, gaur egungo borroka sozial eta politikoekin uztartuta. Egunean zehar alderdi politiko eta sindikalek hainbat omenaldi egin dituzte, eta, arratsaldean, lore eskaintza eta manifestazio jendetsua egun dute.



Justizia eskatu dute manifestariak.

Garoñan arriskurik ez dela egon erantzun du Espainiako Gobernuak


Iazko ekainean Garoñako bi euri-estoldatan aurkitutako kutsadurari buruz Equo alderdiak Espainiako Kongresuan egindako galderari erantzun dio gobernuak. Agiriak dio ez zela arriskurik egon, "ez langileentzat ezta publikoarentzat ere". Gobernuak gaiaren harira erakutsitako "gardentasun falta" salatu du Juan Lopez de Uralde diputatuak.

LGTBI behatokia "arriskuan" dagoela salatu du Lumagorrik

Lumagorri elkarteak kezka azaldu du Gasteizko sexu orientazio eta genero-identitatearen inguruko gorroto delituen aurkako tokiko behatokiaren etorkizunaren inguruan. Elkartearentzat, behatokiak Udalaren promesa bat izaten jarraitzen du, baina, hauteskunde deialdia gertu izateak eta erakundearen erritmo lasaiak "arriskuan" jarri ditu LGTBI pertsonen esku-bideen aldeko proiektua.

Lindanoaren isurketari aurre egin nahi dio Gasteizko Udalak

Udalak arazketa bat jarriko du Gardelegiko hondakindegian, lindanoak kaltetutako lixibiatua tratatzeko eta Zadorrara iristea saihesteko. Udako garai zehatz batzuetan, HCH kontzentrazioak aurkitu dituzte udal teknikariek hondakin-uren sarean eta Zadorra ibaian, Gardelegiko hondakindegitik datozenak, eta neurriak egotera hori konpondu nahi du.



"Artistaren barnera bidaia egiten du 'Margolaria' filmak"

MIKEL URDANGARIN MUSIKARIA

A. AMENABAR/ M. UGARTE

Musikari baten eta margolari baten arteko solasaldi batek abiatu zuen *Margolaria* dokumentala. Mikel Urdangarin eta Alain Urrutiaren arteko hizketaldi baten ostean izan zuen Oier Aranzabalek bidaia kontakizun bat sortzeko ideia, artistak agertokitik kanpo bizi duenaren inguruko bidaiaren dokumentala. Joan den Zinemaldian aurkeztu eta gero, martxoaren 22an helduko da zinemetara, eta esperientziaren berri eman du Urdangarinnek ALEA FM irratsaioan.

Koadro bat izan zen aitzakia bidaia kontakizun hori hasteko, ezta?

Alain lehenagotik ezagutzen nuen, baina Oier orain dela bi urte eta erdi ezagutu nuen Santanderren, erakusketa batean. Hor sortu zen hiruron arteko *feeling*-a, eta hortik aurrera hasi ginen gerora pelikula izango zena grabatzen, Oierrek bultzatuta batik bat. Eskatu zidan nire hurrengo diskoaren sorkuntza prozesua, grabazioa, emanaldiak eta etorriko zena jarraitu ahal izatea. Eta prozesu horren



Mikel Urdangarin. 'MARGOLARIA'

erdian gertatu zen Londresera bidaia bat egin nuela eta han Alainei koadro bat oparitu zidala; horrek istorio guztia bideratu du. Baldintza bakarrik neuk koadroa jasotzea zen, furgonetarekin, Alainei ez zidan bidaliko; Londresera joan eta bueltatu behar nuen. Orduan, gidoilariak ikusi zuten istorioaren ardatzetako bat hor zegoela, bidaia fisiko bat, *road-movie* bat zegoela hor; Euskal Herritik Londreserako bidaia, joan eta buelta.

Artista gehienak ohol-tza gainean ezagutzen ditugu, baina dokumentalean ohol-tza atzean dagoena ere ikusiko du jendeak.

Askok taula gainean ikustetik ezagutzen gaituzte, fokuen indar horren azpian eta nolabaiteko ikuskizun baten barruan. Hori egia da, gertatzen delako, baina gure bizitza aruntetan portzentaje txiki bat da eta egunerokotasuna bestelakoa dela. Oier hor saiatu da murgiltzen; bidai fisiko bat dago, baina beste bidai interesgarriago bat ere badago, askoz lainotsuagoa, zuzen eta zehatza ez dena, baina margo pilo batekin osatzen dena, artistaren barnera bidai bat egiten du filmak.

Edozein artistaren bidaia izan daitekeena, etapa desberdinen inguruko hausnarketarekin.

Bai. Batez ere sortzerako orduan gehienok bakarrik sortzen dugu; publikotik urrun eta etxeko isiltasun horretan, bakarriketa luzeak izan eta gero. Mundu hori askorentzat ezezaguna eta arrotza da, eta uste dut Oierrek lortu duela ia ezinezkoa den mundu bat azaltzea.

Nolakoa izan da bi urteko grabazio prozesu hori?

Nire itzala balitz bezala egon da Oier. Estudioko grabazioa egin genuenean, esate baterako, bost kamara izan nituen atzetik astebetetz; sekulako ahalegina da hori. Ordu asko grabatu ditu kamara taldeak, gero horietatik aukeratu eta galbahea egin ahal izateko. Oierrek konfidantza handia ematen zidan hasieratik, eta konfidantza hori daukazunean ahaztu egiten zara kameraz, horien ordez lagunak ikusten dituzu. Horregatik ez dut nabaritu kamaren pisu hori denbora horretan, nahiz eta denbora luzea izan den. Oso ezkutuan egon dira kamerak, eta uste dut hori ere pelikularen onerako izan dela; jendea nahiko natural agertzen da, eta pelikulak benekotasun handia transmititzen duela uste dut. Oso barrenera sartu da.

Familia eta lagunen testigantzak ere jaso ditu dokumentalak, ezta?

Egia da nigandik oso haratago doan gai bat jorratzen duela pelikulak, nahiz eta ni hautatzeak baldintzatu dituen pelikulak dituen koloreak eta bizimodua, nire inguruko istorioekin. Horretan Kirmen Uribe idazlea agertzen da, Nika Nika Bitchiashvili biolin-jolea, Rada Rueda...

Orain dela hogeitau erabaki zenuen musikan hastea. Erabaki erraza izan zen hasieran?

Bai, niretzat erraza izan zen; baina nire ondokoentzat beharbada ez, gurasoentzat batez ere. Lagun batzuk ere ez nituen alde izan, askori iruditzen zitzaizolako eromena zela soldata finko bati uko egitea sasoi hartan... Irakasle nintzen toki onean, eroso nengoen, baina nik beste gogo

batzuk nituen, eta gogor zetozen gogo horiek ate joka. Ez dut inoiz pentsatu, halere, ausarta izan nintzenik, ez bainuen horren kontzientziarik ere erabakia hartu nuenean. Gerora, hori bai, apustua berriro egin behar da etengabe, eta horretarako bai, batzuetan adorea izan behar da. Atzera begiratuta, balantze oso ona da, musikak bizipen sorta paregabea eman didalako, beste modu batera bizi ezin daitezkeenak; oztopoak oztopo, zorionsua naiz honetan.

2017an aurkeztu zenuen azkeneko lana. Besterik duzu esku artean? Zer datorkigu etorkizunean?

Disko hau aurkezten jarraituko dugu oraindik hurrengo asteetan; laster Idiazabalen izango gara, Dokan, Madrilen... Arabakoa atzeratzen ari da, baina espero dugu hemen ere laster izatea. Bitartean beste egitasmo batzuekin gaude, beste kide batzuekin batera lanean, baina oraindik ezin dut ezer aurreratu; espero dut hilabete batzuetan horren berri ematea. ■■■

**KAPITALA HAUTSI,
BIZITZARI EUTSI!**

GREBA FEMINISTA

MUJERES*
TRABAJADORAS
EN LUCHA

MARTXOAK LAB
FEMINISMO Y LUCHA SOCIAL

Parral

marzotxo

astemartes kulturalak 20:30ean

12

NATALI

INDIE POP
USURBIL

26

**UNIDAD
ALAVESA**

FOLK ROCK
ATAUN



PARRAL TABERNA

f asteburuetan razioak, astean zehar gosariak

SAN FRANTZISKO XABIER KANTOIA 4

astelehenetik ostiralera jantoki begetarianoa

'The Front Runner'

ZINEMA



ZIGOR ETXEBESTE

ZINEMAZALEA

Politikari baten bizitza pribatuak bere ibilbidean eragina izan beharko luke? Moralki gaizki ikusita dagoen jokabideak onargarriak dira zerbitzari publiko izango den horretan? Albisteak lortzeko edozer egin daiteke kazetaritzan? Non kokatzen da, bada, zilegitasunaren muga informatu nahi denean?

Jason Reitman zuzendari kanadiarraren azken lanak, *The Front Runner*-ek, politika eta kazetaritzaren arteko lotura estua du gai bezala eta hitzerdika edo itzulingeruka aritu gabe galdera horiek mahaigaineratzen ditu. 1988ko AEBetako hauteskundeak irabazi asmoz, Gary Hart (Hugh Jackman) demokraten hautagai izateko lehian hasi zen. Urte baten faltan, inkestek bere alderdiaren primarioak irabaziko zituela iragartzen zuten, eta hurrengo presidentea Hart bera bilakatu zitekeela zirudien. Filmak modu azkar eta eraginkorrean aurkezten digu Harten kanpainaren antolakuntza, laguntzaileen eta kanpainaren berri ematen ari diren kazetarien arteko giro ona ere erakutsiz. Hautagaiaren ibilbidea atzeko haizeak bultzatzen duela dirudi.

Une idiliko horretan ustekabeko zerbait gertatzen da, eta Reitman zuzendariak bi minututan Harten amildegi politikorako bidea maisuki



'THE FRONT RUNNER'

laburtzen du. Miamin kanpainako atsedendaldi batean dagoela, Hart barku batera gonbidatuko dute, eta bertan neska bat ezagutuko du (geroago eskandalua estalgabetzen denean Donna Rice deitzen dela jakingo dugu).

Reitmanek tresna soilak erabiltzen ditu nahi duena erakusteko. Hart eta neskaren arteko topaketan gizonaren aurpegi keinuak bakarrik ikusten ditugu, kontraplanorik gabe, neskaren identitatea

**ERRITMO DINAMIKO
ETA EGOKIA ERABILIZ,
LAN FINA OSATU DU
JASON REITMAN
ZUZENDARIAK**

ezkutatuz eta horrela Harten erakarpenaren eraikuntza denbora errealean agertuz. Gero, biak elkarrekin utzi ostean, elipsi zoragarri batekin beraien amodio-afera hasi dela argi izango dugu (yatea egusentian urrunetik ikusten dugu, jitoan sekretuak gordez).

Hortik aurrera filmaren norabideak aipatutako politika eta kazetaritzaren arteko lotura zailak garatuko ditu, batez ere Harten afera berarekin doazen kazetari batzuek ikertzen dutenean. Ordurarte lagunak zituen bizpahiru egunkari etsai bezala izango ditu Hartek, eta nahiz eta aferari buruz ez hitz egiten saiatu, ezingo du gaia denbora luzez saihestu. Eta ez hori bakarrik, konturatuko da bizitza pribatua gertaturikoek ez diotela inoiz hautagai garbia izaten utziko.

Pelikula ez da *All the President's Men* (Alan J. Pakula, 1976) bezalako filmen mailara iristen, baina erritmo dinamikoa eta egokia erabiliz, Reitmanek lan fina osatu du. Eta azken gogoeta bat: Gary Harten ibilbide politikoa amodio-afera batek betirako hondatu bazuen, berdina gertatuko al zen John F. Kennedyrenak zabaldu izan balira? —

zinea

Emakume handiari bidea

GURE BAZTERRAK



Micaela Portilla ibilbidea

Kuadrillak: Mendialdea eta Trebiñu.

Udalerriak: Trebiñu, Urizaharra.

Luzera: 17 kilometroko ibilbide zirkularra.

Bitxikeria: Irakasle eta historialari ezagunaren aita Saratsun jaioa zen, eta bertan igarotzen zituen Portillak udak.

ARGAZKIA: PHOT.OK

TESTUA: ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Trebiñu Batu elkartearen ekimeneri esker antolatu zuten iaz Micaela Portilla ibilbidea, Trebiñuko Albaita eta Lañu eta Urizaharreko Faidu herriak lotzen dituen. Portillak Trebiñurekin zuen lotura berezia azpimarratu zuen orduan Mikel Arribas ibilbidearen sustatzaileak, eta egindako lanagatik omentzea bururatu zitzailela azaldu zuen, ibilbide bat bere omenez eginez.

Gasteiztarraren obran nabarmentzekoa da Gasteizko Elizbarrutiko Monumentuen Katalogo apartaren zortzi liburukietan izan zuen esku-hartzea. Horietako bigarrena, Trebiñu-Albaitako artzapez-barrutiari dagokio. Argitalpen horretan, besteak beste, bide zaharrak aipatzen ditu: adibidez, "Iuda ibaia Albaitan zeharkatu eta Lañutik Cerverako mendateetara eta Errioxako lurretara" zihoana.

Hori da, hain zuzen, berreskuratu duten bidea. Bost bat ordutan egiteko txango erraza, Albaitako plazan hasi eta amaitzen den ibilbide zirkularra.

Albaitatik Lañura doa bidea. Bertan, zenobiten haitzulo ikusgarriak daude. Guztira, hogeita hamaika koba dira, bi multzo nagusitan banatuta. Herrira gerturatu

ahala Gobak errepidearen ezker aldean daude eta Santorkaria eskuinaldean. Bertara gerturatzen den oro harrিতuta geldituko da haitzuloen handitasunarekin.

Halaber, Lañun, Mesozoikoko Europako meatokirik garrantzitsuena dago, eta dinosauroen aztarnak identifikatu dituzte bertan.

Faidu da hurrengo geltokia, eta herri horretan dago Haitzaren Andra Mariaren eliza ederra. Garai batean haitzean zulatutako elizaren aurrean eraiki zuten aipatutako basiliza, eta Erdi Aroko koba artifizial baten barruan dago. Monumentu nazionala da. Egun, eliza itxita dago, eta bisita gidatuak antolatzen ditu enpresa batek. Basilizaz gain beste koba multzoak daude Faidu inguruan. San Julian eta San Migel haitzuloak harraren eskuinaldean daude.

Faidutik bertatik Arabako ikuspegi ederra dago, eta lasaitasuna arnas daiteke.



Irakurleen txokoa

ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozketak

Irabazleak:

The Limboos eta Nevadah taldeen kontzerturako sarrera solteak:

Iber Martinez de Contrasta.

Mikel Mirena Arribas Amestoy.



Hala Bedin afaria Bi lagunentzat

ALEAK Gasteizko alde zaharreko Hala Bedi tabernan bi lagunentzako afaria zozkatuko du, ostiralean edo larunbatean afaltzeko. Zozketan parte hartzeko, eman izena martxoak 12a baino lehen; martxoaren 15eko aldizkarian jakinaraziko dugu irabazlearen izena.



Zinemarako sarrerak Gorbeia zinemak

Edozein pelikula, edozein egunetan eta edozein saiotan ikusteko sarrera bikoitza zozkatzen du ALEAK. Parte hartu nahi dutenek hilaren 13ra arte dute izena emateko aukera. Martxoaren 15ean argitaratuko dugu irabazlearen izena.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

alea.eus/harpidetzak



Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA Martxoaren 8tik 14ra

Euskararen agenda

MUSIKA

AMURRIO Nogen

Serrulla taldearekin batera.
Larunbata 9, 22:30ean, Burubio aretoan.

BERTSOLARITZA

LEGUTIO Arabako Bertsolari Txapelketa

Final erdietako lehendabiziko saioa. Peru Abarrategi, Manex Agirre, Andere Arriolabengoa, Xabi Igoa, Serapio Lopez eta Aitor Ugarte bertsolariekin.
Larunbata 9, 17:30ean, kultur etxean.

GASTEIZ 'Euzkobizion'

Bertsokatu txapelketako finala.
Osteguna 14, 20:00etan, Jimmy Jazz aretoan.

DANTZA

GASTEIZ Ilunabarrean dantzan

Balfolka eta euskal dantzen plaza. Imanol Zabaleta dantzariaren eskutik.
Igandea 10, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

HAURRAK

GASTEIZ 'Nire aita ogroa da'

Antzerkia, La Baldufa taldearen eskutik. Jokin Oregik zuzenduta. 10 urtetik gorakoentzat.
Igandea 10, 18:00etan, Principal antzokian.



'ALARDEAREN SEME-ALABAK'

GASTEIZ 'Alardearen seme-alabak' dokumentala

Irun eta Hondarribiko alardeetan emakumeen parte-hartzeak eragindako eztabaida du aztergai. Dokumentalaren ostean, Eneko Olasagasti, Oihana Etxebarrieta eta Joseba Garmendia izango dira.
Asteazkena 13, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

GASTEIZ 'Kulunkantauri'

Kantu zahar eta kantu berriak, bertsuak eta bestelako ipuinez osatutako ikuskizuna. Ibai Esoain ipuin kontalariaren eskutik. 3-9 urte bitarteko haurrentzat.
Astearte 6, 18:00etan, Aldabe gizarte etxean.

BESTELAKOAK

GASTEIZ 'Idazleekin solasean'

Harkaitz Canok idatzitako *Fakirrean ahotsa* liburuaren eta idazle lanaren inguruko solasaldia. Patxi Zubizarretak aurkeztutako saioa.
Asteazkena 13, 19:00etan, Aldabe gizarte etxean.

GASTEIZ 21. Korrikaren Arabako aurkezpen soziala

Korrikaren aurkezpena Arabako instituzio eta gizarte eragileen aurrean.
Osteguna 14, 20:15ean, Oihaneder Euskararen Etxean.

Jimmy jazz GASTEIZ

MARTXOA

Lr. 9 HAY POCO ROCK AND ROLL
GORAZARRE JAIALDIA: (EXTREMODOURO,
MAREA ETA PLATERO Y TU)

Os. 15 THE LIMBOOS + NEVADAH

Lr. 16 TREMENDA JAURÍA + LA MARE

Ar. 19 BERRI TXARRAK (#SOLDOUT)

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM



Izan
zaitez
ALEAkide



alea.eus/harpidetzak

Marie Curie

Maria Skłodowska Curie zientzialaria.
Bi arlotan (Fisika eta Kimika) Nobel Saria
lortu duen pertsona bakarra.



ERABAKITZEN DUTENA *dudana* IZANGO NAIZ

Berak argi dauka. Eta besteok?

Gizarte guztiaren ardura da emakumeek nahiz neskek
euren eskubideak askatasunez eta berdintasunean gauzatu ditzatela bermatzea.



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN ELIZKAL ERAGINDAKOA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde parlamentarioa

Organismo Autónomo del

ELISKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

MARTXOAK 8

Emakumeen Nazioarteko Eguna

GIHEN 5. HELBURUA

Genero berdintasuna eta
emakume eta nesken ahalduntzea

Agenda
Subsidi
Basque
Country

30

5 GIBEN
BERDINTASUNA

